



**2017KO APIRILAREN 25EKO  
OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko apirilaren hogeita bostean, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Begoña Bueno Barranco, Iñaki Estensoro Sarasola, Amagoia Naldaiz Mingo, Jaber Arrasate Aierbe, Azeari Andonegi Beristain, Ioseba Hernandez Madinabeitia, Marian Zufiria Apeztegia, Imanol Aran Barandiaran, Leire Mendia Arana eta Urtzi Iruin Arruti.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2017ko martxoaren 28an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

**II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-**

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

**III.- ARAU SUBSIDIARIOEN LEHEN ALDAKETA. HASIERAKO ONARPENA.-**

Lazkaoko Udalak, nekazaritza ustiakuntzei buruz 3.5.2 artikuluan xedatutakoari dagokionean, lurzoruaren hirigintza erabilerei buruz 1.1.2 artikuluan xedatutakoari dagokionean, eta 2 H.J.A. -Ibabe-Pingon-eko hirigintzako arautegi partikularrean xedatutakoari dagokionean, Arau Subsidiarioen aldaketa puntuala planteatu du. Aldaketa puntual hau, indarrean dauden arau subsidiarioen lehen aldaketa da. Dokumentua Pedro Izaskun eta Miguel A. Irazabalbeitia arkitektoek eta Jon Orue-Etxebarria Iturri abokatuak idatzitakoa da.

Dokumentuan bertan jasotzen den bezala, hasieran kontsultako dokumentu bat idatzi zen eta ingurumen organoari igorri zitzaion, honek aldaketak ingurumen ebaluazio estrategikoko prozedurara lotu behar zuen ala ez ebatzi zezan.

Kontsulta horren erantzuna ingurumen estrategikoko txosten bat izan zen, 2017ko martxoaren 20ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutakoa, eta bertan esaten da aldaketa hau ingurumen ebaluazio estrategikoko prozedura arruntera lotzea ez dela beharrezkoa.

Ingurumen estrategikoko txostenean egindako oharpenak ikusi ondoren, Arau Subsidiarioen aldaketa puntualeko dokumentua idatzi zen.



Dokumentua hirigintzako batzorde informatzaileak informatua izan da.

Guzti honen aurrean, Osoko Bilkurak, aho batez, eta beraz legezko gehiengo osoaren aldeko botoekin, honako akordio hauek hartzen ditu:

- 1.- Arau Subsidiarioetako lehen aldaketa puntual honi hasierako onarpena ematea.
- 2.- Hasierako onarpen honi buruzko iragarkia hilabete bateko denboraldian jendaurrean jartzea, iragarkia Udaletxeko iragarki oholean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lurraldean hedadura gehien duen egunkarian edo egunkarietan argitaratuz.
- 3.- Halaber, beraien ezaguera eta txostena egite ondorioetarako, hasierako onarpena eskuduntza sektorialak dituzten herri administrazioei jakinaraziko zaie.

#### IV.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Alkateak esaten du Jon Fontenla Sukiak, Aralar Bizirik Taldearen izenean, idatzi bidez hitza eskatu duela, eta hau horrela izanda, hitza ematen dio jende artean dagoen Jon Fontenla Sukiari.

Honek hitza hartu eta esaten du beraien aurkeztutako mozioa aurreko plenoan tratatu zela eta ezin izan zutela bertan izan eta beraien azalpena egin nahi duela orain. Eta jarraian bere hitzaldia egiten du.

Jon Fontenlak bukatutakoan, alkateak esaten du bere hitzaldian planteatu dituen galdera asko aurreko plenoan erantzun zirela. Esaten dio baita ere ondo dagoela Aralarrentzat errespetua eskatzea, baina berak ere errespetua izan beharko lukeela botoa eman duen pertsonarenganako.

#### VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpiak eta hogeita bat direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

